PDF irisgarria
Irakurketa Errazean

Añezkarreko Hobia

Añezkarreko Hobia

Iruñerrian dago, Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian
Iruñerria non dagoen ikus dezakezu.

1934. urtean
Errepublikaren gobernuak
Ezkaba mendian dagoen
San Kristobal Gotorlekua
kartzela batean bihurtu zuen.
1936. urteko Estatu Kolpea eta gero
frankistek Espainiako leku ezberdinetatik
ekartzen zituzten presoak espetxeratzeko
erabili zuten.

Gotorlekuko bizi, higiene
eta osasun baldintzak oso txarrak ziren
eta horregatik preso asko
gaixotasunengatik hil ziren.

1936 eta 1941 urteen artean
frankistek preso hauek
Ezkaba mendiaren inguruan dauden
herrietako hilerrietan lurperatu zituzten.

2009. urtean
Añezkarreko Kontzejuak
eta Txinparta San Kristobaleko Fuertea elkarteak
plaka bat jarri zuten hilerrian
eta omenaldi bat egin zuten
frankistek bertan lurperatu zituzten
San Kristobal Gotorlekuko presoak gogorarazteko.

2010eko azaroan
Los Cinco de la Nava elkarteak
desobiratze bat egin zuen hilerriko kanpoaldean
2 pertsonen gorpuzkiak berreskuratzeko.
Nafarroako Gobernuko DNA Bankuak
oraindik ez daki norenak diren gorpuzki hauek.

Hemen hilerrian dagoen
plakaren argazkia ikus dezakezu:

